

# EUSKAL-ERRIA

REVISTA VASCONGADA

T.<sup>o</sup> LXVII SAN SEBASTIÁN 15 DE SEPTIEMBRE DE 1912 N.<sup>o</sup> 1064



LEZO-KO BLAS JAUNA

† 1741-KO IRAILLA-REN 7-AN



# LEZO-KO BLAS JAUNA

IL ZAN 1741-KO IRAILLA-REN 7-AN

R. I. P.

**P**ASAI Pedro Donea-ren erri alayian jayo zan 1687-ko 6-an. Ichaz ertzian edo baztarran jayua, edo oraindik garbiyago, ichaz gañian sortuba, ichasorako biar zuben nunbait, eta ala gertatu zan pasaitar argidotar au, ichaz gizonetan, argi, azkar, pizkorrenetako bat.

Emezortzi urte zitubenerako, ichaso-ko gudalarien artian nagusi zebillen, eta laster goieneko malletara igo zan, bere ausarditasun eta buru argien bitartez.

Gogoangarriak dira Lezo-ko Blas argidotarrak ingelesakin izan zituben guda gogor eta estuak Indietako Kartajenan buru egon zanian.

Bere kaltian bildu zituben Ingalatierrak, zituben ontzi sendoenak, burusari azkarrenak, gudalari pizkorrenak. Bañan alperrik. Gipuzkoar ichas-gizon bulartsuak denak aspiratu zituben bere kemen aundiakin.

Arritu ziran erridi danetan Lezo-ko Blas-en egipen gogoangarriakin, eta goitu zuten bere izen maitagarriya biyotz zintzoak.

Aomen aundiak alde danetatik artzen zitubela il zan len esan dan Indietako Kartajenan 1741-ko Irailla-ren 7-an.

Bere izen atzegiña geyago ta geyago goratzeko Markes de Obiekoren izenarekin saritubak izan ziran bere ondorengiak.

EUSKAL-ERRIA

